



AZKEN ALDIZ IREKIKO DITU ATEAK **ARANTZABIK**

Amasako Arantzabi jatetxea gaur itxiko dute 100 urte inguru lanean aritu ondoren, «nekea eta errelebo faltagatik» 7

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2008-06-01

VIURTEA 1.449.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ibarrako hainbat gunetan aritu ziren herri desberdinetako dantzariak dantza saioak eskaintzen. A. IMAZ

IBARRA DANTZARI GAZTETXOEN TOPALEKU BILAKATUTA

KULTURA Dantza eta Mutxikoaren Eguna antolatu zuen atzo Alurr dantza taldeak; 350 dantzari inguru aritu ziren dantzan 5



Hamalau pintxo desberdin aurkeztu zituzten lehiaketara atzo. E. EZEIZA

Pintxo onenari saria eman diote Txaramako jaietan

LEABURU-TXARAMA Herenegun hasi eta atzo amaitu ziren jaiak, ekitaldiz beteriko egunarekin 4

HITZAK bikoiztu egin du irakurle kopurua urte batean, **CIESen** azterketaren arabera

HEDABIDEAK 16.000 irakurle ditu egunero; iaz, 8.000 batu zizkieten 6

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

diseinu grafikoa

GOL MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA PUBLIZITATE GRAFIKAN

TITULAZIO OFIZIALA
IKASTETXE PUBLIKOA
PRAKTIKAK LANTOKIAN

Izen-ematea: Ekainaren 2tik 9ra

arte@gmail.com
postia. 943 454366

Diseño
USANDIZAGA
INSTITUTUA



DISEINU GRAFIKO eta sormenean oinarritutako heziketa

Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak

ceinpro

TITULAZIO OFIZIALAK
Nazioarteko lehiaketak
praktikak atzerrian

IRUDIZTAPENA . KARTELGINTZA . PUBLIZITATEA .
ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . SERIGRAFIA
WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAGINTZA

www.ceinpro.es
INFORMAZIOA 943 310 873

Herria: Pasealekua 98 • 20008 Donostia • Gipuzkoa • Faxa 943 510 876

Diario ¿Vasco?



» Uzturretik

Joxi Imaz

Hau da oraingoz *Uzturretik* sailerako nire azken zutabea. Urtebeteren ondoren, beste bati txanda emateko garaia iritsi da. Azken zutabe honetan HITZA

zoriondu nahi nuke egiten duen lanarengatik. HITZA eta orokorrean, euskal komunikabideak eta euskalgintzan ari diren pertsona eta proiektuak. Haiei esker, ea XXI. mende honetan lortzen dugun Euskal Herria herri normalizatu bat izatea. Eta zer da herri normal bat? Ba adibidez, komunikabideak dituena: Espainian komunikabideak gaztelaniaz funtzionatzatzen badute, Frantzian frantsesez, Alemanian alemanez... euskal komunikabideak euskaraz funtzionatzatzen dutenak izango lirateke.

Gertatzen dena da, Euskal Herria oraindik ez dela herri normala. Ziur zuei ere adibide ugari bururatzatzen zaizkizuela. Hona hemen bat: Tolosaldean, eskualderik euskaldunenetarikoan, jende gehien ibiltzen den lekuan, Maxi-Eroskin, berdura eta fruta sailean, berdura eta fruten izenak gaztelania hutsean daude! Baina erruaez da beti *besteena*. Gure buruak ere kolonizatu dituzte inguruko hizkuntza eta kultura handiek. Hona hemen beste adibide bat: inork behartu gabe, gehienetan inkontzienteki, euskaldun

gehiok gure etxeetan telebista-ko lehenengo bi kateetan *Television Española* jartzen dugu (*La Primera* eta *La Dos*). Horiek izan behar al dute euskaldunon lehenengo eta bigarren telebista kateak?

Eta prentsa idatziaren kasuan ere, egoera arduratzeko modukoa da. Tolosaldean, biztanleriaren %50 baino gehiagok euskara dakien eta boto abertzalea nagusitzen den eskualdean, jendearen gehiengoak *Diario Vasco* erosten jarraitzen du, 50 orrialdetik euskaraz bi orrialde ematen dituen egunkari anti-abertzalea. Non dago gure koherentzia? 2008an Tolosan egingo diren manifestazioetatik jende gehien bildu due-

netako bat, Abiadura Handiko Trenaren kontra urtarrilean eginkoa izango da ziurrenik (1.500 pertsona). *Diario*-kez zuen aipatu ere egin! Hori al da informazioa? Ez ahaztu, beste egunkari baten publizitateak dion bezala, «irakurtzen dugun hura garena». Ziri-miriak bezala, egunean zehar entzun, ikusi eta irakurtzen dugunak, azkenean busti egiten gaitu. Eta HITZA bezalako proiektuei esker Euskal Herria gero eta euskaldunagoa den bitartean, beste proiektu batzuen ondorioz Euskal Herria laster izango da *Pais Vasco*, folklore berezia duen Europako erregio edo area metropolitarr bat. Guk aukeratu beharra daukagu zer nahiago dugun.

A Asteko irudia



Tolosa erdigunean babarrunaren baratza

Bai Euskarari Ziurtagiria
gu ziur gaude

“profesionalak garelako”
“hizkuntzari gaitasuna”
“pikadirik onena delako”
“elkar ulertzen dugulako”

ziurtagiarenekin
942 40000

1.500 iruditale bako bereziki

Tolosaldeko Mankomunitateak, **aldi baterako administrari bat lanaldi erdira** hautatzeko premiazko deialdia egingo du.

Oinarriak eta eskaera egiteko orriak, Tolosako Udaletxeko Informazio eta Erregistro Zerbitzuan daude interesatuen eskura, Plaza Zaharraz 6 A zikian.

Eskaerak aurkezteko epea 2008ko **ekainaren 6an** bukatzen da, eguerdiko 13:00etan.

Ibarran, 2008ko maiatzaren 28an.
LEHENAKARI ORDEA,

idealista.com
Ez pasa kasurik egin gabe
doako iragarkiak partikularrentzat

Mutil gazte bat behar da Asteasun
tailer mekaniko baterako (18-22 urte).
Telefona: **652724169**

Giro ederra izan zen atzo nagusi larunbateroko ohiko azokan

Azoka » Berrikuntza bezala, baratxuri freskoa eta erremolatxa nabarmendu ziren postuetan, besteak beste.

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna oso alaia eta animosoa suertatu zen goizeko lehenengo ordutatik. Eskaintza oso zabala da egun hauetan, eta bate-len lehiaketaz lagunduta, interes haundia sortu zuten goiz osoan zehar.

Postuetan barazki asko ikusi genuen. Berrikuntza bezala baratxuri freskoa eta erremolatxa izan ziren nagusi, eta hauekin, baba eta ilarra asko, patata berria, tipula berria, tipulina, eta tipula gorria.

Perretxiko zerrenda ere oso zabala izan zen. Ziza, ziza horia, onddoa eta aurtengo lehenengo gibeldurinak. Antza denez, datozten egunetan eskaintza honek gora egingo du, eta posible da gure mendietan ere ugartzea.

» ATZOKO AZOKA

| BERDURA PLAZA | Merka | Gares. |
|------------------|-------|--------|
| Landareak | | |
| Erromeroa | 4,00 | 6,00 |
| Xarbota | 4,00 | 6,00 |
| Lobelia | 4,50 | - |

» BERTAKO PRODUKTUAK

| Perretxikoak | | |
|--------------|-------|-------|
| Ziza horia | 20,00 | - |
| Ziza | 6,00 | 35 |
| Onddoa | 21,00 | 30,00 |

| Fruta | | |
|----------|------|---|
| Marrubia | 4,00 | - |

| Barazkiak | | |
|--------------------|-------|-------|
| Baba | 3,00 | 4,00 |
| Porruak | 1,00 | 3,00 |
| Tolosako babarruna | 10,00 | 12,00 |
| Zainzuria | 12,00 | - |

| Gaztak | | |
|--------------|-------|-------|
| Gazta berria | 16,00 | - |
| Ardigazta | 14,00 | 18,00 |
| Behigazta | 7,00 | 7,50 |

| PRODUKTU EKOLOGIKOAK | | |
|------------------------|------|------|
| Sagarra | 2,00 | 3,00 |
| Kalabaza | 1,60 | 3,04 |
| Tipula | 1,75 | 2,00 |
| Aza | 2,50 | 3,00 |
| Ahuntz gazta (200 gr.) | 3,00 | - |
| Arraultzak | 3,50 | 3,00 |
| Azukrea | 3,35 | - |
| Mermelada | 3,00 | 3,60 |

@ Irudiak eta bideoak. Sar zaitetz gure webgunean eta hainbat ekitaldietako irudiak eta bideoak ikusteko aukera izango duzu, *bideoak eta irudietan* ataletan sartuz:

www.tolosaldeko-hitza.info

Amalur: topaleku bat

» Iritzia

Alberto Luengo Tellechea
Amalur jardunaldietako antolatzailea

Hiru urtez Amalur jardunaldiak antolatu eta gero, balorazioa egiteko moduan gaude. 2006. urtean porposamena sortu zenean, gure ideia, gure *leit motiv*a, bidaiaren inguruko begirada eta ikuspegi desberdinak herritar guztiei gerturatzeko zen. Ezagutzari eginiko gure ekarpenak ingurumen, antropologia eta gizarte gaiak zabalzetik joan behar zuela konbentzitu ginen, eta horretarako Amalur ekimen egokia izan zutekeen eta izan beharko

luke. Azken batean, Baba Dioum kontserbazionista senegaldarraren hitzak gure egin genituen: «maitatzen duguna soilik zainduko dugu; ulertzen duguna soilik maitatuko dugu; erakusten dugutena soilik ulertuko dugu». Bage-nekien azken helburura iristeko, hau da, gure ondare natural eta kulturala babestera heltzeko, aurrerik pauso batzuk eman behar zirela eta horietako bat informaguztiei gerturatzeko zela. Hori zen gure helburua, eta horixe da gaur egun ere.

Gure inguruko errealitatea ulertzeko moduz bezala bidaiari gizarteratzeko testuinguru honetan, Amalur jardunaldietako hiru

edizioak osatu dituzten lurraldeetako ikuspegi desberdina eskaintzen saiatu gara, topikoeatik urrunduz. Hala, Ekialdeko Afrikaren inguruan aritu ginenean bidaiari bera izan zen jardunaldiaren ildo. Nepalekin konturatu ginen ez dela soilik paradisu bat, bertako jendea dela benetako altxorra. Eta Artikoak erakutsi diguzten guztietan hitzik gabe uzten zaituen lekua dela, baina era berean, ahula, oso ahula. Laburbilduz, hiru urte hauetan, ekimen interesgarri bat egiten saiatu gara, aukeratutako gaiarekin asmatzen saiatuz, eta parte-hartzaileei egokituz. Noski, bakoitzak atera ditzala bere ondorioak.

Errealitatea ulertzeko moduz bezala bidaiari gizarteratzeko asmo horretan, Zerkausian pasa den urtean garrantzi handia izan zuen. Tolosako leku esanguratsu hau topaleku izaten saiatu ginen, beste behin. Hitzaldi batzuk kalean egitea era honetara uler daitezke: bidaiari ulertzeko moduz berria herritar guztiei zabaltzea.

Jardunaldiak egonkortu direla uste dugu. Uste dugujendeak probatu dituela, eta oraindik asko dagoela kontatzeko. Baina etorkizunean pentsatu behar dela ere uste dugu, eta horretarako ilusioa mantentzea izango da garrantzitsua; Amalurrek aurrerapauso bat egin dezan, eta hiru urte hauetan parte hartu dutenei merezi duten topalekuak eskaini diezaien. Azken batean, guztiok baikara Amalur.



IV. Kirol Topaketan haur ugari

ZIZURKIL • Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak IV. Kirol Topaketa antolatu zuen atzo Zizurkil Goian. Eurria lagun izan zuten Intxaur frontoian egin zituzten kirol-jolasak Bertara gerturatu ziren haurrak urteen arabera lau taldetan banatu zituzten, eurentzat egokienak ziren jolasak egiteko. Gurasoak algara artean harmailetatik begira egon ziren. ASIERI MAZ



Arraunlari taldearen aurkezpena

ANOETA • Anoetan sortu berri den arraun taldearen aurkezpena egin zuten atzo. Tolosako San Joanetako estropadan lehiatuko dira lehenengo aldiz arraunlari gazteak. Atzokoan, herriaren sarreran elkartu ziren taldea babestu duten erakunde eta enpresetako ordezkariekin batera, jendaurrean aurkezpena egiteko. Ondoren, kalejirarekin ospatu zuten talde berriaren sorrera. E. EZIZIA



Musikaria astea, azken txanpan

TOLOSA • Udal Musika Eskolak antolatuta, Musikaria astea ari dira ospatzen. Honela, ekitaldien artean, Tolosako Musika Banda eta Arimaz Soka Orkestra izan ziren Zerkausian, emanaldi bikaina eskaintzen. Jende ugari hurreratu zen bertara, ikuskizunaz gozatzen. Gaur berriz, kalejira eta musika eskolako ikasleen kalejira izango dira 12:00etan. ESTIEZIZIA

Iragarki laburrak

» ALOKAIRUAN

■ **Etxebizitza.** Jakan. 3 logelako etxebizitza alokatzen da. Ekain-uztaila-abuztua. Deitu 635 75 02 93 zenbakira.

» GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Txakur bat agertu da Orexan. Tamainaertaina, marroi kolorea eta hanketan ile zuriak ditu. Telefono zenbakia: 943 68 20 35.
■ **Katua.** Katu pertsa ilegorria, umea eta 10 hilabetekoa galdu zen Leitzan larunbatean. Aurkituz gero deitu telefonoz: 656 71 94 23 zenbakira (Iñaki).

» LANA

■ **Errotulatzaila.** Pertsona bat

behar da errotulazio enpresa batean lan egiteko. Interesa dutenek deitu 943 69 02 94 telefono zenbakira.

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. Harremanetan jartzeko deitu 685 22 70 58ra.

» SALGAI

■ **Garajea.** Alegiko kalean, 25 m²-ko garaje itxia. Gaienean entreplantu dauka. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 606 80 22 14.

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin beharra dago. Interesatuek deitu 657 23 00 11 edo 634 91 94 82 telefono zenbakietara.



Pilota partidak, 62. urteurrenean

AMASA-VILLABONA ● 62 urte bete ditu Behar-Zana elkarteak eta hori dela eta, hainbat ekitaldi ari da ospatzen urtean zehar. Horietako bat izan zen atzokoa, non alebin eta benjaminen pilota partidak izan ziren. Hasiera batean Errebote plazan jokatu behar baziren ere, azkenean, eguraldi txarra medio, Amasako frontoian egin zituzten. E. EZEIZA



Hegatsak astinduz, Usabalen

TOLOSA ● Roberto Jauregiren omenezko VI. Hegats igeriketa txapelketa jokatu zen atzo, egun guztian zehar, Usabal kiroldegian. Bertan, Euskal Herriko nahiz Espainiako igerilari gazteak bildu ziren. Han aritu ziren ere IK Tkoak. Banaka nahiz erreleboka egin zituzten saioak, eta jende ugari bildu zen animatzeko ere. ESTI EZEIZA

Ekain beltza berriarekin

eleBERRI beltzArenkin



Utzi ezinik irakurtzeko modukoak



Lau liburu:

ekainak 7, 14, 21 eta 28



+
2,9€



OHARRA: Irteerak bultzatu arteko eskaintza



Hamalau pintxo ezberdin aurkeztu zituzten parte-hartzaileek; hiru lagun aritu ziren epaile lanak egiten. ESTI EZEIZA

Txaramako festetan pintxo onenaren bila ibili dira

Leaburu-txarama »

Herenegun hasi eta atzo amaitu ziren auzoko jaiak; estreinako, pintxo lehiaketa egin zen atzo.

ESTI EZEIZA

Udara gain-gainean den honetan, eskualdeko lehendabiziko festak hasiak dira dagoeneko. Asteburu honetan, Txaramaren txanda da. Herenegun ekin zieten jaiak, eta horren iragarle izan zen iluntzean botatako suziria. Hala ere, egunik garrantzitsuenak atzokoa izan zen.

11:00ak aldera hasi ziren ekitaldiak. Honenbestez, bezperako parrandaren ostein, norbait lo bazeen ere, iratzargailu bikaina prestatu zuten jai batzordekoek, suziria hain zuzen ere.

Ondoren, Leaburu, Txarama, Gaztelu eta Villabonako 24 dantzari gazteek emanaldia eskaini zuten plazan. Hauek, agurra, Sanjoan dantza, eta ipurdi dantza egin zituzten, besteak beste. Ondoren, egindako lana eskertzeko, hamai-



Urteroko ohiturari jarraituz, toka txapelketa egin zuten atzo eguzkipean. E. E

ketakoa prestatu zieten herritarrek. Bitartean, beste hainbat lagun tokan ibili ziren, denera 18 pertsona. Baina, fitxarekin txapa gehien jo zuena Anizeto Ugartemendia leaburuarra izan zen.

Arratsaldean berriz, haur jolasak eta txokolatada izan ziren gatzetxoentzat, baita mus txapelketa azkarra ere. Azkenik, herri afariarekin eman zieten amaiera jaiak. Gainera bertan izan ziren, afalos-

tea alaitzeko asmoz, Amets Arzallus eta Sustrai Colina bertsolariak nahiz Astiasaran trikilaria.

Pintxo gozoenaren bila

Goizari amaiera emateko pintxo lehiaketa egin zuten. Parte-hartzaileek etxean sukaldatu zituzten bakoitzaren gustuko pintxoak. Hala, nahi zituzten osagaien egindako sei pintxo berdin aurkeztu zituzten. Hauetatik, hiru, epaimahaiko kideek dastatu zituzten, eta gainontzekoak, inguruan zebiltzan herritarrek. Denera 14 pintxo mota ezberdin izan ziren lehian: gulenak, tortila mota ezberdinekin, urdaiazpiko, arraultza eta piperrez osatuak...

Epaimahaiko kideek hiru ezauzgarri hartu zituzten kontuan, irabazlea zein izango zen erabakitzeko garaian: itxura, zaporea eta originaltasuna. Horren arabera, Jema Anton izan zen garaile. Honek, xixa, haragi xehe eta tipularekin egindako tortila aurkeztu zuen etxean egindako ogi xigortuaren gainean.

Aurreko urteetan, pintxo lehiaketa egin beharrean, tortila patatarena egin zuten, eta aurten lehendabiziko aldiz egin da bestea. Hala, antolatzaileak oso gustura agertu dira jendearen erantzunarekin eta izan duen maila ere azzimarratu dute.

elduaiein

LUDOTEKA UZTAILEAN

INGELESEZ JOLASEAN
4-12 URTE BITARTEKOENTZAT
GOIZEKO 9TIK 13AK ARTE

IKASTARO TRINKOAK
EKAINA-UZTAILA-ABUZTUA
EGUNERO 1, 2 EDO 3 ORDUKOAK

TOLOSA:
Martin Jose Iraola 8-e ez / 943 670052 – 943671275
Kondeaneko Aldapa, 30 - 943 674733
Nafarroa etorbidea, 12 Behea – 943 670052



Belabieta kiroldegian bildu ziren lehenik dantzariak. ASIER IMAZ



Herrian zehar kalejira eta dantza emanaldiak eskaini zituzten. ASIER IMAZ

Ibarran dantzariak han eta hemen

ASIER IMAZ

Alurr dantza taldeak Dantza eta Mutxikoaren Eguna antolatu zuen atzo Ibarran. Bertan 350 dantzari inguru elkartu ziren, herri ezberdinatik etorriak: Berastegi, Anoeta, Irura, Alegia, Altzo, Berro-

bi, Bera de Bidasoa (Nafarroa) eta Ibarrako dantzariak elkartu ziren herriko hainbat lekutan.

Egitarauari zegokionez, 10:00etan Belabieta kiroldegian dantzari guztiak *Agurra* dantza-tzeko elkartu ziren. Ondoren jai-

parte hartu zuten talde bakoitzak bi dantza egin zituen.

Paella jatea Emeterion

Goizean batzuk dantzan zebiltzan bitartean hainbat guraso paella prestatzen aritu ziren, bazkaltzen

gelditu ziren dantzari, musikari eta guztientzat. Euskal jaiaren jendea baserriarrez jantzirik ez egon arren, jende ugari bildu zen Dantza eta Mutxikoaren Egunean. Bestalde, azken asteetako ikastaroei eragina izan zuten eta hainbat

guraso eta herritar Mutxiko dantzaren pausoei ausart moduan agertu ziren.

Herrian zehar dantzariak egindako kalejirak kolore eta doinu bereziz jantzi zituzten atzokoan Ibarrako kaleak.

Onatiko b.h. institutua zuazela-larraña **KALITATEA HEZKUNTZAN**

AURRE MATRIKULAZIO EPEA: EKAINAREN 2tik 13ra
Informazioa: telf.: 943782150 / www.onati.net / onatikobhi@goieskola.net

ATE IREKIAK: ekainak 3, 18:00etan ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Natur ingurunean gorputz eta kirol ekintzen gidaritza: 1400 ORDU (urtebete)
- Mekanizazioa: 2000 ordu
- Linea eroanbideen eta makinaren mantenu elektromekanikoa: 2000 ORDU



TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA



- ➡ Nahi baduzu ikasi eta lan, kontratu iraunkor batekin...
- ➡ Nahi baduzu hiru urtetan mekanikako goi-mailako zikloa...
- ➡ Nahi baduzu goizean ikasi, arratsaldean lan...

deitu gure institutura!

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra



Geroz eta gehiagok aukeratzen dute egunero egunero HITZA eskualdeko albisteak irakurtzeko. A.I.

16.000 irakurle ditu HITZak egunero, CIESen azken azterketaren arabera

Hedabideak » Pasa den urteko datuekin alderatuta, bikoiztu egin du irakurle kopurua eskualdeko euskarazko egunkariak.

ERREDAKZIOA

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZak bikoiztu egin du urte batean irakurle kopurua CIES institutuaren arabera. Izan ere, egunkariaren eta aldizkariaren irakurle kopurua neurtzeko urtean zehar egiten dituen azterketen azken emaitzek

erakusketan dutenez, 16.000 irakurle ditu eskualdean egunero HITZak. Azterketa hauek 8.000 irakurle eman zizkioten HITZari pasa den urtean, beraz, bikoiztu egin du kopuru hori, eskualdean egunkaria errotuta dagoela argi utziz; horretaz gain, gero eta jende gehiagok hautatzen duela HITZA eskualdeko berriak irakurtzeko erakusten dute datu horiek.

Eskualdeko datuei erreparatu, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA bigarren egunkari irakurriena da, lehenengoa den *Diario Vasco*-rekiko aldea asko murriztu

duelarik. *Berria* litzateke azterketa horren arabera hirugarren egunkari irakurriena, 5.000 irakurle-er

HITZA eta 'Berria'-ren irakurleak batuta, euskarazko prentsa da irakurriena eskualdean

kin, laugarrena *Gara*, 4.000rekin, eta bosgarrena *El País* 1.000 irakurleekin. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA eta *Berria*-ren irakurle kopurua batuta, beraz, 21.000 dira guztira egunero euska-

razko prentsa hautatzen dutenak gure eskualdean. Hala, euskarazko komunikabideak direla Tolosaldean irakurriena esan daiteke, CIESen azterketaren arabera.

HITZak gorakada nabarmena

Eskualdeko egunkariaren emaitzak onak badira berdin esan daiteke gainerako HITZEI buruz. Izan ere, 2007. urteko datuak aintzat hartzen baditugu, CIESek 56.000 irakurle ematen zizkien HITZEI Gipuzkoan, eta azken azterketen emaitzek diotenez, 68.000 irakurle dituzte. Igoera nabarmena izan

da, %21ekoa, hain zuzen ere. Gipuzkoako gainerako egunkariaren datuekin alderatuta, HITZA bigarren egunkari irakurriena litzateke.

Webguneak bisitari ugari

Egunkariaren ezezik, Internet bidez jarraitu daiteke egunero TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA. Geroz eta bisitari gehiago ditu gure webguneak, batez beste 2.500 batzen dituelarik, eta hainbat egunetan 6.000-7.000 bisitari izatera eta iristen da.

» CIES 2008, MARTXOA

| TOLOSALDEA | Komunikabideak | Irakurleak |
|--------------|----------------|------------|
| Diario Vasco | | 20.000 |
| HITZA | | 16.000 |
| Berria | | 5.000 |
| Gara | | 4.000 |
| El País | | 1.000 |

GIPUZKOA

| Komunikabideak | Irakurleak |
|----------------------|------------|
| Diario Vasco | 288.000 |
| HITZA | 68.000 |
| Gara | 45.000 |
| Berria | 39.000 |
| Noticias de Gipuzkoa | 23.000 |
| El País | 16.000 |
| El Mundo | 9.000 |
| El Correo | 5.000 |
| Deia | 3.000 |

» CIES 2007, URRIA

| TOLOSALDEA | Komunikabideak | Irakurleak |
|--------------|----------------|------------|
| HITZA | | 8.000 |

GIPUZKOA

| Komunikabideak | Irakurleak |
|-------------------------------|------------|
| Diario Vasco | 296.000 |
| HITZA | 56.000 |
| Gara | 47.000 |
| Berria | 39.000 |
| Noticias de Gipuzkoa | 24.000 |
| El País | 18.000 |
| El Mundo | 8.000 |
| El Correo | 7.000 |
| Deia | 6.000 |
| Diario de Navarra | 2.000 |
| Diario de Noticias de Navarra | 1.000 |

Hilberria

BALENTIN ETXABE PEÑA



Larrosa ahoan eta patxada gozoan beti gordeko zaitugu aitona gogoan



Txixu, Karmele, Manex, Maddi, Igor eta Nagore

ZARAUZTEN
2008ko
ekainaren 14an

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

FUNERARIA VASCONGADA EHOZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia)
Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia)
Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala
Tolosa (Bellatokia)

JOXEMI SAIZAR

Amasako Arantzabi jatetxeak, gure eskualdeko ezagunenetakoak, itxi egingo ditu bere ateak gaur bertan, hainbat urtetan jende askori bazkaltzen eta afaltzen ederki eman ondoren, tartean artista, politikari, kirolari, handi jende eta famatu ugari. Gaur egungo arduradunek «nekea» eta «errebo falta» aipatzen dute jatetxea ixtearen arrazoi gisa.

Anizeto Zugasti eta Dolores Garagorri senar-emazteek zabaldu zuten Arantzabi jatetxea duela 100 urte inguru, izen bereko baserrian. Orduan gaur egun baino askoz ere txikiagoa zen, urteen poderioz berrikuntza eta zabaltze lanak egiten joan direlako. Baserriko produktuekin eta kanpotik erositakoekin sukaldaritza lanetan murgildu ziren eta pixkanaka izena hartzen hasi ziren. Garai haietan gainera, ez zegoen hainbeste jatetxe hemen inguruan.

Bigarren belaunaldiak, haien seme-alabek, lanean jarraitu eta ospe areagotu egin zuen. Miguelek amaren lekuko hartu zuen sukaldetan eta Madrilgo Ritz hotelan, Sevillan eta Baionan ikasi zituen garaiko berrikuntzak. «Laranja erara prestatutako aha-tea, adibidez, Baionan ikasi zuen», adierazi dio HITZARI Pili Zugasti ilobak. Gazterik hil omen zen. Miguelek batera, Agustina jangelan aritzen zen, Jose baratzan eta Margaritak ere laguntzen zuen. Berezitasun gisa, baserriko behien ganbelak bistan eduki zituzten urte askotan zehar, jatetxera joaten zirentzat.

Sukalderako goi mailako generoa lortzeko, lehendabiziko urteetan astoz eta geroago trenen (ahateak Salamancatik, ardo barrika Errioxatik) edo autobusez Donostiara edarriak eta jakiak nola ekartzen zituzten gogoratzen dute arduradunek. «Ardoa barrikatan ekartzen genuen garai batean Haroko Martinez Lacuesta upelgetatik eta gero hemen bertan enbotelatzeko, horretarako propio enkortxadore bat etorri. Gero aitak erosi zuen enkortxatzeko makina eta gu aritzen ginene. Etxe berekin jarraitzen dugu orain ere lanean», dio Zugastik. Sagardoa ere egiten omen zuten garai batean, baina etxerako, orduan jatetxean askoz ere gutxiago kontsumitzen zelako.

Hirugarren belaunaldian sei senide aritu dira Arantzabin lanean, tartean Pili, Marilo eta Teresa Zugasti. Horietako hiru jadanik erretiratu egin dira. Hurrengo belaunaldia osatuko luketen beste bi gazte aritu dira gaur egun sukaldetan, baina aurrera jarraitzeko asmorik ez dutenez, jatetxea ixtea erabaki dute. «Martxoan elkartu ginene eta hartuta genituen konpromisoak kontuan izanda, ekainaren lehen-ixtea erabaki genuen. Beste uda bat ez genuen pasatu nahi lanean, nekata gaudete», dio Pili Zugastik. Zerbitzariak bilatzeko dituzten arazoak ere aipatu ditu: «Aste-



Arantzabi baserrian egon da 100 urtetan kokatua izen bereko jatetxea, Amasan. J.SAIZAR

Amasako jatetxe ezagunak gaur itxiko ditu ateak, 100 urte inguru lanean aritu ondoren, «nekea» eta «errebo falta» argudiatzen dute arduradunek; urte askotan pertsonai famatu ugari izan dira bertan.

Arantzabi jatetxea, itxita



Arantzabi jatetxeko terrazan ezkontza ospakizun ugari izan dira; Gipuzkoan horrelako gutxi zeuden garai batean. HITZA

buruetan lan egiteko inor ez duzu bilatzen. Inork ez du nahi igandee-tan lan egin».

Goi mailako jatetxea

Euskal Herriko sukaldaritza tradizioan alandu du bere historian zehar Arantzabi jatetxeak eta berezitasun batzuk izan ditu: laranja erako aha-tea, osso-buco, mihi-arraina (lenguado) meniere erara, barazki menestra, neguan babarrunak, udan txipiroiak... Plater eder horiek, aurkezpen eta tratu ezin hobearrekin batera, jende asko erakarri dute Amasara. Garai batean handi jendeak bakarrik zuten horrelakoetan bazkaltzeko edo afaltzeko aukera. Donostiara Frantziatik, Madrildik, Bartzelonatik... uda pasatzea etortzen ziren asko, besteak beste. Donostiako Aste-

Nagusian bereziki, jende asko biltzen zen bertan. Jatetxearen izen gisa Amasa erabiltzen zuten kanpotar gehienek, baserriaren izena alde batera utzita.

Bisitarien liburuan pertsonai famatuen zerrenda luzea biltzen da 1940 ingurutik hona: politikariak, artistak, futbolariak, aktoreak, toeroak, abeslariak, konteak, markesak, dukeak, enbaxadoreak... Eta mundu osokoak: frantsesak, japoniarrak, arabiarrik... «Aitak Uztaritza bidali gintuen lau ahizpak frantsesa mojekin ikastera», dio.

Juan de Borbon Asturiaseko printzea, Carmen Polo (Francoren emaztea, etxeko sagarrak oparitu omen zizkioten senarrarentzat), Ava Gardner, Carlos Gardel, Maria Dolores Pradera, Natalia Fi-

gueroa, Albako duke-dukesak, Manolo Escobar («behiak jaten ikusten diren jatetxe horretara» joan nahi omen zuten Gipuzkoara etortzen zen bakoitzean), Candido sukaldari segoviarra, Hugo Sanchez futbolaria, Osasunako futbolariak, Mary Santpere, Jaime de Armiñan, Paco Valladares, Adolfo Marsillach, Jose Miguel Barandiaran, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Julio Caro Baroja, Bernardo Atxaga, Andu Lertxundi, Anjel Aikain, Txillida familia...

Denak «gustura» ateratzen omen ziren jatetxetik, eta askok urtero edo maizago errepikatu egiten zuten. Baten batek, Nietzsche filosofoaren esaldia hartuz, Arantzabi zerua eta lurraren arteko soka dela idatzita utzi zuen bisitarietarako duten liburuan. Nahiz

Lehen menu luzeagoak izaten ziren eta koparik eta pururik gabeko otordurik ez zegoen

Lehen bazkaltzera joatea gauza handia zela diote, orain berriz, ez dagoela horrelako ilusiorik

Asteburuetan lan egiteko kamarerak bilatzeko arazoa dute, inork ez du lan egin nahi jaiegunetan

eta jatetxea itxi, bisitarien liburu mardula ondo gordeko dutela diote, jatetxearen historiaren oroigarri gisa.

Aldaketa ugari urteotan

Azken urteotan sukaldaritza eta otorduek izan duten aldaketek ere mintzatu zaigu Zugasti: «Lehen hona etortzea, adibidez, gauza handia zen. Patxada handiz etortzen ziren. Orain berriz, inora bazkaltzera joateko ilusiorik ez dago, edozein joan daiteke edozein egunetan edozein tokitara. Eta presa handiago izaten da».

Menuaren aldaketahandianabaritu dute: «Lehen menu luzeagoak izaten ziren. Orain berriz, askoz ere gutxiago jaten da. Eta edan ere bai, noski. Lehen normala zen aurretik koktel bat hartzea eta plater bakoitzerako edari desberdina eskatzea: ardo zuria, beltza, gozoa... Eta koparik eta pururik gabeko bazkaririk ez zegoen. Konbinatuak ez zituzten hartzen, baina koñaka bai. Orain hori dena erabat aldatu da».

Enpresa bazkari eta afariak ere desberdinak omen dira: «Lehen sekulako taldea etortzen zen, batez ere inguruko paperfabriketatik: nagusia, laguntzaileak, txoferra, bisitariak... Orain berriz, nagusia eta bisitaria bakarrik etortzen dira eta kitto». Orain aste egunetan askoz ere jende gutxiago ibiltzen omen da jatetxean, jende gutxia asteburuan pilatuz. Eta horrek kamareroak bilatzeko arazoa areagotu egiten du.

Ezkontza ospakizun kopurua ere asko jaitsi dela dio Arantzabiko ordezkariak. «Garai batean hemen inguruan Irurako Laskibar hotela eta gu bakarrik aritzen ginene horretan ia. Orain jendea gehiago mugitzen da eta kostaldera jotzen da, espazio zabalagoak bilatzen ditu eta luxuari garrantzi handiago eman».

Bizitza osoan bertan aritu izan dira Zugasti anai-arrebak, hasieran baserrian laguntzen eta ume-tatik orain arte jatetxean lanean ere bai. Erretiratzeke garaia iritsi zaie. «Kitto, onenak emanda gaudete», esan dute. Nekatuta daude. Historia luzeke etxe bat itxiko dute gaur.

HITZAREN bidez, Arantzabiko familiak bere eskerririk beroena eman nahi die bezero eta lagun guztiei, hainbeste urtetan bertan jarri duten konfiantzagatik.



19°
13°

| | |
|---------|-------|
| GOIZA | EURIA |
| ARRATS. | EURIA |
| BEROENA | 19° |
| HOTZENA | 12° |

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Ibarra.** V. Garagardo Festa plaza, 18:00etatik aurrera.
- **Tolosa.** XIV. Musikaria bukatze-ko, kalejira 12:00etan eta musika eskolako ikasleen banden kontzertua Berdura plazan 12:30ean.
- **Tolosa.** Gipuzkoako Amuarrain eta Barbo Arrantza Txapelketa izango da Oria ibaian, Zerkausi inguruan, benjamin, alebin eta infantil mailetan, 09:00etatik aurrera.
- **Alegia.** Artisau Azoka. 11:00etan egongo da irekita, eguerdira arte.
- **Alegia.** III. Bertso Paper Lehiaketa antolatu du Zazpi Astoren Gai-ean bertsozale taldeak. Lanak Kultur eta Kirol Etxean entregatu edo zazpiastorengainean@gmail.com helbidera bidali beharko dira.
- **Alegia.** Hilaren 6an izango da Kultur Etxean *Herria kantuan* emaldia. Sarreak 2 eurotan daude salgai Kultur Etxean.
- **Tolosa.** Uztailaren 6an egongo den Jubilatuen Festarako izen-ematea Harizpe eta Iturritza jubila-tu elkarteetan. 65 urte izan eta Tolosan bizi direnentzat da.

Zinema

- **Tolosa.** Leidor aretoan gaur: 17:00etan, *Algo pasa en Las Vegas*; 19:30ean, *Algo pasa en Las Vegas*;



Batel Topaketarekin «oso gustura»

TOLOSA ● Tolosako hiru ikastetxeek antolatutako II. Batel Topaketa izan zen atzo Oria ibaian, Zerkausi parean. Batxilergo mailan Laskorain izan zen irabazlea, eta Orixe bigarren eta Hirukide hirugarren geratu ziren. DBH mailan, berriz, Hirukide A izan zen lehena, eta hauen atzetik geratu ziren Laskorain B, Laskorain A, Hirukide B, Orixe, Uzturpe, Jesusen Bihotza A eta B.

Jon Aldazabal Tolosako Udaleko zinegotziak eta Juan Agirre Topaketen koordinatzaileak banatu zituzten sariak. Bestalde, hainbat gaztetxok *Ala* ikasketa on-tzian ibiltzeko aukera izan zuten, Isuntzako patroia *Xagu* irakasle zutela. «Arrauna sustatzeko eta gazte-ak arraunera gerturatzeko helburuz» antolatutako e-kimenarekin oso gustura geratu dira antolatzaileak. i.r.

22:00etan, *Algo pasa en Las Vegas*; bihar (ikuslearen eguna): 20:30ean, *Algo pasa en Las Vegas*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK Gaur

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 5118.
- **Leitza.** Campos M.Z. Elbarren, 52. 112.
- **Bihar**
- **Ibarra.** Ugarte, M. T. Euskal Herria, 48. 943 67 32 74.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak



ASTE BERDEA 08

Izen-ematea eta informazioa:
943367534
ekocenter@emaus.com

BIGARREN ESKUKO GAUZEN AZOKA

- Nahi duenak bere gauzak saldu/trukatu/oparitzeko aukera.
- Azokaren egunean bertan egon behar du zerbait saldu/trukatu/oparitu nahi duenak.
- Antolatzaileek jarriko dituzte postuak.

10:30ean **INGURU/MENUA** antzerkia
(Ten Con Ten Kultur Taldea)

Birziklapen tailerra ere izango da

EKAINAK 7, LARUNBATA
10:30-14:00

VILLABONAKO
BERDURA PLAZAN



IES Hernani BHI
A. Iturriaga Santa Barbara auzoa z/g - 20120 HERNANI - Tel.: 943 551188 FAXA: 943 552271
K. LABAKA Karmelo Labaka 7 - 0120 HERNANI - Tel.: 943 551958 FAXA: 943 330550
e-mail: institutua@hernanibhi.com www.hernanibhi.com

ELEKTRIZITATEA
Ekipe eta instalazio Elektroteknikoak (Erdi Maila)
Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)

MEKANIKA
Mekanizazio (Erdi Maila)
Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazio mekanikoa)
(Goi Maila)

AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 2tik 13ra

